

# E: herrietako festak

## Helburuak:

- ✓ *Eskaera egitea udalekoei ekintza jakin bat jaietako egitarauan txerta dezaten.*
- ✓ *Ikasleak taldean euskaraz aritzera bultzatzea.*
- ✓ Testu bat irakurri eta ikasleek euren burua testuko talderen batekin identifikatzea, hau da, euren jokabide eta zaletasunez hausnartzea.
- ✓ Herriko jaien inguruan duten iritzia azaltzea.
- ✓ Herriko jai egitaraua aztertzea.

## Zertan den:

Lehendabizi ikasleek inguruko jaien gainean zenbat dakiten neurtuko dute. Horretarako jai jakin batzuk herri batzuekin identifikatu beharko dituzte. Ondoren, "Nolako jaiak, halako gazteak" irakurri eta gero, euren burua zein taldetan sartuko luketen pentsatuko dute ikasleek; talde egokirik egon ezean beste bat sortu euren neurrira.

Herrira etorritik, jaietan zer egiten duten eta jaiari buruz zein iritzi duten aztertuko dute. Jai egitaraua ere aztertuko dute eta ikusi egitarau horretan zer den egokia eurentzat edo euren adinekoentzat.

Bukatzeko eskaera idatzi bat egingo dute udaletxera gustuko duten ekintzaren bat egitarauan txerta dezatela eskatzeko.

## 1 Herrietako jaiak

- **ATAZAURREA:**  
**Inguruetako jaiak**  
1.1.
- ✓ Azaldu ikasleei zein izango den ataza honetako gaia eta amaieran egin beharko duten lantxoak.
  - ✓ Galdetu ikasleei ea inguruko herrietako jaietara joaten diren, eta erantzuna baiezkoa bada, zein herritara eta zeintzuk diren herri horretako jaiak.
  - ✓ Esan ikasleei lot ditzatela ezkerreko zutabeko jaiak eskuineko zutabeko herriekin.
  - ✓ Elkar itzazu ikasleak binaka eta erka dezatela egin dutena.
  - ✓ Egin zuzenketa klase osoarentzat. Ikasle bakoitzari eskatu esateko herri bat eta herri horretako jaiak zeintzuk diren.
- **ATAZA:**  
**Nolako jaiak, halako gazteak.**  
1.2.
- ✓ Galdetu ikasleei ezagutzen dituzten jai guztietatik zeintzuk diren onenak eta txarrenak eta zergatik.
  - ✓ Azaldu ikasleei izaeraren edo zaletasunaren arabera aukeratzen ditugula parranda egiteko lekuak eta horretaz diharduela, hain zuzen ere, irakurriko duten testuak.
  - ✓ Irakur dezatela testua: "Nolako jaiak halako gazteak".
  - ✓ Irakurri ondoren eta inori ezer esan gabe, ixil-ixilik, ikasle bakoitzak pentsa dezala zein taldetako lagunekin identifikatzen den gehien. Ez badu egokirik ikusten, sor dezala beste talde bat bereztat.
- **ATAZAOSTEA:**  
1.3.
- ✓ Jar itzazu ikasleak hiru eta komenta ditzatela ikaslearen liburuko lau galderak.
  - ✓ Galderak komentatu ostean, lehenengo hiruretan esandakoa denen artean eztabaidatu.

## 2 Herriko jaietako programa



### **ATAZAURREA:** **Herriko jaiak.**

#### **2.1.**

- ✓ Esan ikasleei orain herriko jaietako erreparatuko diezuela.
- ✓ Jarri ikasleak binaka eta eztabaida dezatela euren liburuxkan dituzten lau puntuen inguruan.
- ✓ Eztabaida amaitu ondoren, galdetu bikote bakoitzari zer dagoen soberan eta zer faltan herriko jaietan. Ikasleek esan ahala, apunta itzazu erantzunak arbelean.
- ✓ Bana iezaezu herriko jaietako egitaraua.
- ✓ Binaka azter dezatela egitarauko zer den egokia eurentzat eta zer ez. Komeni da alde aurretik parametro batzuk jartzea egokitasuna neurtzeko (adibidez ordua, lekua...). Ez du balio esatea "niri ez zait gustatzen, beraz, ez da egokia".
- ✓ Denon artean hitz egin horretaz ikusteko ea bikoteetan esandakoa berdintsua den.
- ✓ Azkenik, erkatu orain esandakoa arbelean dagoen zerrendarekin. Egitaraua irakurri aurretik eta irakurri ostean duten inpresioa bera da?



### **ATAZA:** **Eskaera.**

#### **2.2.**

- ✓ Erreparatu arbeleko zerrendari eta irakurri ozenki zer falta den jaietan.
- ✓ Azal iezaezu ikasleei zer idatzi mota egin behar duten.
- ✓ Jar itzazu ikasleak hirunaka eta pentsa dezatela eurek zer eskatu duten. Beti ere egingarria izan beharko da, esate baterako, ez dezatela diru pila ikaragarria kobratuko lukeen talde atzerritarra eskatu.
- ✓ Hiruko talde horietan ados jarri beharko dira.
- ✓ Erabakitakoaren arabera, ikasle bakoitzak idatz dezala bere eskaeria.



**FEEDBACKA:**  
**2.3.**

- ✓ Bukatu ahala, horman jarriko dituzte.
- ✓ Horman jartzen dituztenean, egin itzazu zuzenketarik premiazkoenak.
- ✓ Denek denenak irakurri eta gustukoena aukera dezatela.
- ✓ Udaletxera bidal dezatela nahi izanez gero.